

Funtsezko baliabideak

Externalizazioa: Gure enpresak aplikazio bat sortu behar duenez, baina arlo honetan adituak ez garenez, kanpoko enpresa baten eskuetan utziko dugu aplikazioaren sorrera. Diseinua eta informazioa guk aukeratuko dugu, baina programazioa edo *play storeko* kudeaketa enpresa honen esku utziko dugu.

Hobetzeko aukera: Astero informazioa eguneratuko dugu, eta ondoren aplikazioa sortu duen enpresarekin elkartuko gara aldaketak eta hobekuntzak egiteko. Bilera bakoitzean egon diren arazo guztiak komentatuko ditugu eta hauek konpontzen saiatuko gara modu eraginkor batean. Honela gure eta enpresaren arteko erlazioa produktiboa dela bermatuko dugu, eta aplikazioa berritzean bezeroaren nahiak asetzen ditugula ziurtatuko dugu.

Iraunkortasuna: gure enpresaren iraunkortasuna urteetan zehar bermatzeko, jatetxe eta supermerkatu berriak irekitzen direnean inguruan gure aplikazioko informazioa eguneratuko dugu eta moden arabera berritu.

Baliabide hauek izango lirateke beharrezko gure negozio-ereduak funtziona dezan:

Baliabide fisikoak: gure enpresa kudeatzeko lokal bat alokatuko dugu, bertan honen administrazioa egingo dugu eta horretarako ordenagailuak eta mugikorrak behar izango ditugu.

Finantza baliabideak: baliabide hauekin langileak kontratatu, soldatak ordainduko ditugu. Hau finantzatzeko hainbat diru sarrerez baliatuko gara: enpresa sortzerakoan guk jarriko dugun kapitala (aurrezkietatik etorriko dena), enpresa sortzeko eska ditzakegun diru laguntzak (udaletxea, Eusko Jaurlaritzza, enpresak...) eta play storetik etorriko den dirua eta jatetxeek eta supermerkatuek ordainduko digutena.

Baliabide intelektualak: bezeroen datu baseak, jatetxe eta supermerkatuek emango diguten informazio guztia, eta aplikazioa sortzeko enpresaren ezagutzak beharrezkoak izango ditugu gure proiektua aurrera eramateko.

Giza baliabideak:

- Aplikazioa deskargatzen duten bezeroak
- Supermerkatuan eta jatetxean kontratatzen eta gurekin kontaktatuko duten pertsonak
- Aplikazioa sortzeko ardura edukiko duen enpresa eta zeregin hau duten langileak.
- Gure enpresan bertan lan egingo duten langileak.